

MEMORIA HISTORIKOAREN AUTONOMIARTEKO SAREAREN I. TOPAKETA

Memoria historikoarekiko konpromisozko Adierazpen Instituzionala
Nafarroa, 2018ko martxoak 16

Bizikidetza gizarte demokratiko guztien oinarritzko eta saihestu ezinezko helburua da. Bizikidetza hori egiazkoa eta bidezkoa izan dadin, ezinbestekoa da iraganera begirada kritiko bat luzatzea, balore demokratikoetatik eta oinarri etiko sendoetatik, eragindako Giza Eskubideen urraketa oro gaitzetsiko dituen.

1936ko kolpe militarrek indarkeria oldea eragin zuen gure gizartean konpondu ezinezko min ikaragarria sortuz. Dozenaka milaka pertsona bidegabeki erailak, zaurituak, kartzelaratuak, errepresaliatuak edo deserrira behartuak izan ziren. Gure konpromisoa, Giza Eskubideen errespetutik eta bakearen, tolerantziaren eta errespetuaren aldeko kulturaren defentsatik, 1936ko kolpe militarren ondoren eta diktadura frankistan zehar indarkeriaren injustizia sufritu zutenekin dago.

Administrazio publikoak gertatutakoaren memoria modu aktiboan balioan jartzeko ardura dugu, hori baita gizarte etikoago, justuago, solidarioago eta demokratikoagoa indartzeko bidea. Ahantzurak eta memoria ezak gure oinarri demokratikoen zutabeak ahultzen dituzte; memoriarekin soilik erantzun ahalko baitiogu biktimei zor zaien egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideari.

Gaur, 2018ko martxoaren 16an, Nafarroan, hemen bildu garen Erkidegook ondoko Adierazpen Instituzionala onartzen dugu:

1. 1936ko kolpe militarra eta diktadura frankista gaitzesten ditugula eta bakearen, errespetuaren eta tolerantziaren aldeko konpromisoa hartzen dugula berresten dugu.
2. Memoriarekin dugun konpromisoa adierazten dugu; memoria indarkeriaren bidegabekeria gogoratzeko eta gizarte justuago, etikoago, solidarioago eta demokratikoagoa eraikitzeke tresna gisa, zoritxarreko gertakari haiek berriro gerta ez daitezen.
3. Giza Eskubideekin eta egiarako, justiziarako eta erreparaziorako biktimei zor zaien eskubidearekin gure konpromisoa hartzen dugu beste behin.